# Arte eta Kultura Industrien Enpresa Konfiantza Adierazleak

2015ko bigarren seihilekoko emaitzak eta 2016ko lehen seihilekorako perspektibak

# Indicadores de Confianza Empresarial de las Artes e Industrias Culturales

Resultados del segundo semestre del 2015 y perspectivas para el primer semestre del 2016

Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

2016ko otsaila

## AURKIBIDEA

**SARRERA** ........ 3.

**METODOLOGIA** ........ 3.

Kontsulta panela ........ 3.

Denbora-tartea ........ 3.

Adierazleen kalkulua ........ 4.

**EMAITZAK** ........ 5.

Fakturazioaren bilakaera ........ 5.

Egoera ........ 7.

Aurreikuspenak ........ 9.

EKA eta EKAA ........ 11.

Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak ........ 14.

Giza baliabideak ........ 15.

## ÍNDICE

**INTRODUCCIÓN** ........ 3.

**METODOLOGÍA** ........ 3.

Panel de consulta ........ 3.

Ámbito temporal ........ 3.

Cálculo de indicadores ........ 4.

**RESULTADOS** ........ 5.

Evolución de la facturación ........ 5.

Situación ........ 7.

Expectativas ........ 9.

ICE e ICEA ........ 11.

Factores limitadores de la actividad ........ 14.

Recursos humanos ........ 15.

## SARRERA

Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB-OVC) Arte eta Kultura Industrien sektoreko Enpresa Konfiantza Adierazleen inguruan (EKA) egindako hirugarren estatistika da hau. Helburu nagusia, sei hilean behin Arte eta Kultura Industria establezimenduek negozioaren egungo egoeraz eta epe laburrerako aurreikuspenez dituzten pertzepzioak ezagutzea da. Estatistikaren hirugarren edizio honek Enpresa Konfiantza Adierazleen inguruko aldagaien bilakaera zehatzago aztertzeko aukera ematen du.

Edizio honetan ere, panelaren aurreneko ediziorako osatutako enpresa kolaboratzaileen panel bera kontsultatu da, eta panelaren bitartez jasotako datuekin, kultura sektore ezberdinen egoera eta espektatiba adierazleak kalkulatu dira (arte eszenikoak, liburugintza, musika, ikusizko arteak eta ikus-entzunezkoak). Adierazleen kalkulurako metodologia, Estatistikako Institutu Nazionalak enpresa konfiantza neurtzeko erabiltzen duen bera da. Hirugarren edizio honetan gainera, Arte eta Kultura Industrien panelean parte hartu duten enpresen giza baliabideen inguruko informazioa bildu da lehen aldiz: enpresan lan egiten duen pertsona kopurua eta enpresan ardura duten pertsona kopuruaz galdetu zaie; beti ere, emakumezko eta gizonezkoak bereziz.

## INTRODUCCIÓN

Esta es la tercera estadística de Indicadores de Confianza Empresarial de las Artes e Industrias Culturales (en adelante, ICE) realizada por el Observatorio Vasco de la Cultura (KEB-OVC). El objetivo principal de esta estadística es conocer semestralmente las percepciones que los establecimientos de las Artes e Industrias Culturales tienen en torno a la situación actual del negocio y sobre las expectativas a corto plazo. Esta tercera edición de la estadística nos permite conocer más detalladamente cómo empieza a evolucionar la confianza empresarial.

Para esta edición se ha vuelto a consultar al panel de establecimientos colaboradores conformado para la primera edición del panel, y a través de los datos obtenidos mediante ese panel de consulta, se han calculado los indicadores ICE de los diferentes subsectores culturales (artes escénicas, libro, música, artes visuales y audiovisual). La metodología aplicada, corresponde a la que utiliza el Instituto Nacional de Estadística para el cálculo de indicadores de confianza empresarial. En esta tercera edición, se ha recopilado por vez primera información acerca del personal que trabaja en los establecimientos que conforman el panel: se ha preguntado por el número de personas que trabaja en la empresa, y el número de personas que ocupa cargos de responsabilidad en la toma de decisiones, diferenciando entre mujeres y hombres.

## METODOLOGIA

### Kontsulta panela

Panelaren lehen ediziorako osatutako 70 enpresen lagin adierazgarritik abiatu gara; panel hori ondorengo aukeraketa irizpideei jarraiki osatu zen: sektorea eta enpresaren tipologia, fakturazioa eta lurraldea. Guztira, lagineko 68 enpresetako informazioa bildu da. Aurreko bi edizioetan bezala, informazio bilketa lanak Siadeco enpresak egin ditu.

| Kultura sektorea | Establezimendu kopurua |
|---|---|
| Arte eszenikoak | 13 |
| Ikus-entzunezkoak | 12 |
| Ikusizko arteak | 6 |
| Liburugintza | 18 |
| Musika | 19 |
| **Guztira** | **68** |

### Denbora-tartea

Hirugarren kontsulta honetako adierazleak, 2015eko bigarren seihilekoari eta 2016ko lehen seihilekoari dagozkio.

## METODOLOGÍA

### Panel de consulta

Se ha partido de la muestra estratégica de la primera edición del panel compuesta por 70 establecimientos. Dicha muestra se configuró utilizando estos criterios de selección: sector y tipología de empresa, facturación y territorio. En total, se ha recabado información de 68 empresas. Como en pasadas ediciones, la recogida de datos la ha desarrollado la empresa Siadeco.

| Sector cultural | Nº de establecimientos |
|---|---|
| Artes escénicas | 13 |
| Audiovisual | 12 |
| Artes visuales | 6 |
| Libro | 18 |
| Música | 19 |
| **Total** | **68** |

### Ámbito temporal

Los indicadores de esta segunda consulta, corresponden segundo semestre del 2015 y al primero del 2016.

## Adierazleen kalkulua

Adierazle bakoitzaren saldoa
Erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko aldea da.

Egoera balantzea
Negozioaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Amaitu berri den seihilekoari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da.

Aurreikuspenen balantzea
Negozioaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Hasi berri den seihilekoari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da.

Enpresa Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)
Negozioaren emaitza ekonomikoaz galdetu eta izan diren emaitzetan oinarrituta kalkulatzen dira. EKA egoera saldoa eta aurreikuspenen saldoaren batez besteko geometrikoa da, emaitzak behar bezala normalizatuta.
EKAtik abiatuta EKAA kalkulatzeko, oinarritzat 2015eko lehen seihilekoa hartzen da.

Kalkuluaren xehetasunak ondorengoak dira:

**Enpresa Konfiantza =**
= EKA $=\sqrt{(\text{Egoera} + 200) \times (\text{Aurreikuspenak} + 200)} - 200$

**Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua =**
= EKAA$=\frac{EKA+200}{\text{EKA1Seihil2015+200}} \times 100$

Desestazionalizazioa
Adierazleen kalkulurako ez da desestazionalizaziorako teknika zehatzik aplikatzen, baina galdetegian, erantzunak urte sasoia kontuan hartuta emateko beharrezkoak diren oharrak sartu dira; hau da, negozioaren emaitza ekonomikoaren balorazioa baikorra da, bere jarduera aurreko urteko seihileko berarekiko igo egiten bada.

## Cálculo de indicadores

Saldo de cada variable
Se calcula como la diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el porcentaje de respuestas desfavorables.

Balance de Situación
Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables, referida al semestre que acaba de finalizar.

Balance de Expectativas
Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables, referida al semestre que acaba de comenzar.

Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)
Se construyen a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. El ICE es la media geométrica del saldo de situación y del de expectativas, normalizando adecuadamente los resultados.
Partiendo del ICE el ICEA se calcula cogiendo como período base el primer semestre de 2015.

Los detalles del cálculo son los siguientes:

**Confianza empresarial =**
= ICE$=\sqrt{(\text{Situación} + 200) \times (\text{Expectativas} + 200)} - 200$

**Índice de Confianza empresarial armonizado =**
= ICEA$=\frac{ICE+200}{\text{ICE1Sem2015+200}} \times 100$

Desestacionalización
No se aplica ninguna técnica específica de desestacionalización en el cálculo de los indicadores, si bien en el cuestionario se incluye una nota para que se respondan las preguntas considerando la estacionalidad de la actividad del establecimiento; es decir, la valoración del resultado económico del negocio en un semestre es favorable si su actividad aumenta respecto al mismo semestre del año anterior.

## EMAITZAK

### Negozioaren fakturazioaren bilakaera

2015eko bigarren seihilekoan, eta lehen seihilekoarekin alderatuta, fakturazioaren bilakaera saldoa positiboa da: 27,9 puntukoa. 10etik ia 5 establezimenduk beren negozioetako fakturazioa aurreko seihilekoarekiko igo egin dela adierazi dute (%47), eta 10etik hiru pasatxok, mantendu egin dela (%34).

Datuak sektoreka aztertuta, liburugintza da bilakaeran saldorik positiboena duen sektorea: 66,7 puntu (Liburugintza establezimenduen %72k fakturazioa igo egin dela adierazi dute eta batez besteko fakturazio igoera %82koa izan da).

Kontrara, Ikusizko arteen sektorea da fakturazioaren bilakaeran saldorik ezkorrena duena: -50 puntu (eta batez besteko fakturazio jaitsiera %189).

## RESULTADOS

### Evolución de la facturación del negocio

El segundo semestre del 2015, en comparación con el semestre anterior, el saldo de la evolución de facturación es positivo: se sitúa en 27,9 puntos. En casi 5 de cada 10 establecimientos empresariales la facturación ha aumentado respecto al semestre anterior (47%), y en algo más de 3 de cada 10 se ha mantenido (34%).

Analizando los datos por sectores, el sector con saldo más favorable es el sector del Libro, con 66,7 puntos (el 72% de los establecimiento del sector ha señalado que la facturación ha aumentado; el porcentaje de aumento de facturación medio es del 82%).

Al contrario, el sector con saldo más desfavorable es el de las Artes visuales: -50 puntos (con un porcentaje de descenso de facturación medio del 189%).

**Negozioaren fakturazio saldoa**
**Saldo de la evolución de la facturación**
**(II/2015)**




**Erreferentzia aldia – Período de referencia: I/2015**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoa/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza /Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Igo egin da/Ha aumentado (%) | 23,1 | 33,3 | 16,7 | 72,2 | 57,9 | **47,1** |
| Mantendu egin da/Se ha mantenido (%) | 46,2 | 50,0 | 16,7 | 22,2 | 31,6 | **33,8** |
| Jaitsi egin da/Ha disminuido (%) | 30,8 | 16,7 | 66,7 | 5,6 | 10,5 | **19,1** |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | -7,7 | 16,7 | -50,0 | 66,7 | 47,4 | **27,9** |

**Igoera/jaitsiera % – % de aumento/descenso: I/2015**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoa/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza /Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Batez besteko igoera %/ % de aumento medio | 33,7 | 34,3 | 30,0 | 82,2 | 80,6 | **69,5** |
| Batez besteko jaitsiera %/ % de descenso medio | 49,1 | 54,0 | 189,0 | 37,3 | 12,5 | **86,3** |

Aurreko urteko seihileko berarekiko ere (2014ko bigarren seihilekoa) fakturazioaren bilakaera saldoa positiboa da: 4,4 puntukoa. Fakturazioa igo edo mantendu egin dela adierazi duten enpresen ehunekoa %72koa da. Panelaren hirugarren edizioan, aurreko urtearekiko fakturazio bilakaera saldoan emaitza positiboa lortu da lehen aldiz; erantzun baikorren portzentajea ezkorren portzentajea baino altuagoa izan da lehendabizikoz, alegia.

2014ko bigarren seihilekoarekin alderatuta fakturazioaren bilakaera positiboena izan dutela adierazi duten sektoreak Ikus-entzunezkoak eta Liburugintza izan dira (50 puntuko saldoa du sektore bakoitzak). Ikus-entzunezkoena da fakturazioaren batez besteko igoera altuena duena: %81.

Fakturazioaren bilakaeran saldorik negatiboena duen sektorea berriz, Ikusizko arteena da berriz ere (-50 puntuko saldoa eta %48ko batez besteko fakturazio jaitsiera).

El saldo de la evolución de facturación respecto al mismo semestre del año anterior (segundo semestre del 2014) también es favorable, de 4,4 puntos. El porcentaje de empresas en los que la facturación ha aumentado o se ha mantenido es del 72%. En esta tercera edición del panel, es la primera vez que se obtiene un saldo de evolución de la facturación positivo en los datos comparativos con el año anterior; es decir, el porcentaje de respuestas favorables ha sido mayor que el porcentaje de respuestas desfavorables por primera vez.

Los sectores con la evolución más favorable en el segundo semestre del 2015 respecto al año anterior (segundo semestre del 2014) son el sector Audiovisual y el sector del Libro (cada sector con un saldo medio de 50 puntos). El sector Audiovisual es el sector con mayor aumento del porcentaje medio de la facturación, con un 81%.

El sector con saldo más desfavorable respecto a la facturación del segundo semestre del 2014, es el sector de las Artes visuales (con un saldo medio de -50 puntos y una disminución media de la facturación del 48%).

**Erreferentzia aldia – Período de referencia: II/2014**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoa/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza /Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Igo egin da/Ha aumentado (%) | 0,0 | 58,3 | 0,0 | 61,1 | 21,1 | **32,4** |
| Mantendu egin da/Se ha mantenido (%) | 61,5 | 33,3 | 50,0 | 27,8 | 36,8 | **39,7** |
| Jaitsi egin da/Ha disminuido (%) | 38,5 | 8,3 | 50,0 | 11,1 | 42,1 | **27,9** |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | -38,5 | 50,0 | -50,0 | 50,0 | -21,1 | **4,4** |

**Igoera/jaitsiera % – % de aumento/descenso: II/2014**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoa/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza /Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Batez besteko igoera %/% de aumento medio | - | 81,0 | - | 14,2 | 64,4 | **42,8** |
| Batez besteko jaitsiera %/ % de descenso medio | 19,6 | 33,0 | 47,9 | 11,7 | 11,6 | **20,5** |

## Egoera: amaitu den seihilekoaren inguruko balorazioa

2015eko bigarren seihilekoaren egoera balantzea positiboa da lehen aldiz Arte eta Kultura Industrien Panelaren hirugarren edizio honetan. Amaitu den seihilekoaren inguruko balorazioan, erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko aldea 4,4 puntukoa izan da.

## Situación: valoración empresarial del semestre saliente

En el segundo semestre del 2015, es la primera vez que el balance general de situación del panel de las Artes e Industrias Culturales es positivo. La diferencia entre porcentajes favorables y desfavorables en torno a la situación ha sido de 4,4 puntos.




Egoera balantzea sektorearen arabera aldatu egiten da: Liburugintza da balantzerik positiboena duen sektorea (50,0 puntu) eta Musika negatiboena duena (-21,1 puntu).

10etik 7 establezimendurentzat 2015eko bigarren seihilekoan lortutako emaitza ekonomikoa baikorra edo normala izan da. Aurreko edizioetako egoeraren balorazioarekin alderatuta, emaitzak positiboagoa direla esan daiteke: emaitza ekonomikoa baikorra izan dela adierazi dutenen ehunekoak gora egin baitu, lehen edizioko %29tik hirugarren edizioko %34ra. Emaitza ekonomikoa ezkorra izan dela adierazi dutenen ehunekoa berriz, baxuagoa izan da.

Pero este balance varía de sector a sector; así, el sector del Libro es el sector con balance más positivo (con 50,0 puntos) y el sector de la Música el sector con balance más negativo (con -21,1 puntos).

Para casi 7 de cada 10 establecimientos empresariales el resultado económico del segundo semestre del 2015 ha sido favorable o normal. En comparación con los resultados de anteriores ediciones, se puede afirmar que los resultados de esta tercera edición son más positivos, puesto que ha aumentado el porcentaje de establecimientos que han respondido que el resultado económico ha sido favorable, pasando del 29% de la primera edición al 34% de esta edición. El porcentaje de establecimientos que han respondido que el resultado económico ha sido más desfavorable ha disminuido.




**Egoera balantzea – Balance de situación: II/2015**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoa/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/ Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Baikorra/Favorable (%) | 23,1 | 25,0 | 33,3 | 55,6 | 26,3 | **33,8** |
| Normala/Normal (%) | 38,5 | 58,3 | 16,7 | 38,9 | 26,3 | **36,8** |
| Ezkorra/Desfavorable (%) | 38,5 | 16,7 | 50,0 | 5,6 | 47,4 | **29,4** |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | -15,4 | 8,3 | -16,7 | 50,0 | -21,1 | **4,4** |
| *Saldoa /Saldo I/2015* | *7,7* | *0,0* | *20,0* | *11,8* | *-40,0* | ***-6,1*** |
| *Saldoa /Saldo II/2014* | *15,4* | *15,4* | *-33,3* | *11,1* | *-25,0* | ***-1,4*** |

Negozioan eragiten duten aldagai desberdinen bilakaerari dagokionez, oro har, salmentak igo edo mantendu egin direla esan daiteke 2015eko bigarren seihilekoan. Azpimarratzekoa da EAEko salmentak igo egin direla adierazi dutela establezimenduen erdiak baino gehiagok (%52). Azken bi edizioetako datuekin alderatuta, datu hori oso positibotzat jo daiteke, orain arteko edizioetan EAEko salmentak igo direla adierazten zuten establezimenduak 10etik 3 besterik ez baitziren. Estatuko salmentak eta atzerriko salmentek, aldiz, alderantzizko joera erakutsi dute, salmenta mota horietan jaitsi egin direla adierazi dutenen ehunekoak aurreko edizioetakoak baino altuagoak baitira (%40 dira Estatuko salmentak jaitsi egin direla diotenak eta %42 atzerriko salmentak jaitsi direla diotenak).

En cuanto a la evolución de los distintos factores que inciden en el negocio, en general, se puede afirmar que las ventas han aumentado o mantenido estables en el segundo semestre del 2015. Cabe subrayar que más de la mitad de los establecimientos ha dicho que las ventas a nivel de la CAE han aumentado (52%). En comparación con las ediciones anteriores este dato se considera un dato muy positivo, puesto que hasta ahora sólo 3 de cada 10 establecimientos empresariales afirmaban que las ventas a nivel de la CAE habían ascendido. Al contrario, parece ser que la tendencia ha sido a la inversa en las ventas al resto del Estado y al extranjero, puesto que los porcentajes de la disminución de ventas han aumentado en esos casos (el porcentaje de los que han indicado que la ventas al resto del Estado han disminuido es del 40% y en el caso de las ventas en el extranjero del 42%).

Enplegua, oro har, mantendu egin dela esan daiteke aurreko seihilekoarekiko (% 81 dira hala adierazi dutenak); baita kostuak ere (% 66). Hala ere, enpleguaren kasuan datuak panelaren aurreko edizioan baino positiboagoak dira, igo egin dela diotenen ehunekoa altuagoa baita ( % 13).

En general, se puede afirmar que el empleo se mantiene estable respecto al semestre anterior (así lo ha indicado el 81 %) y también los costes (el 66 % ha indicado esto). Pero en el caso del empleo el dato es más positivo que en ediciones anteriores, puesto que ha aumentado el porcentaje de los que han indicado que el empleo ha aumentado respecto al semestre anterior (13 %).




## Aurreikuspenak: hasi den seihilekoaren inguruko balorazioa

## Expectativas: valoración empresarial del semestre entrante

2016ko lehen seihilekorako aurreikuspenen balantzea orain arteko Arte eta Kultura Industrien Paneleko edizio guztietatik ezkorrena dela esan daiteke. Hastera doan seihilekorako aurreikuspenetan, erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko aldea -11,8 puntukoa izan da.

El balance de expectativas para el primer semestre del 2016 ha sido el más negativo de todas las ediciones del panel de Artes e Industrias Culturales. La diferencia entre el porcentaje de respuestas positivas y respuestas negativas es de -11,8 puntos.




Aurreikuspenen balantzea aldatu egiten da sektore batetik bestera: Arte eszenikoena izan da balantzerik negatiboena (-23,1 puntu) eta Ikusizko Arteena positiboena (16,7 puntu).

El balance de expectativas varía de sector a sector: así, el sector de las Artes escénicas es el que balance más negativo ha obtenido (-23,1 puntos) y el de las Artes visuales el sector con balance más positivo (16,7 puntos).

10etik 3 establezimendurentzat 2016ko lehen seihilekorako aurreikuspenak ezkorrak dira. Aurreko edizioetako aurreikuspenen balorazioarekin alderatuta, emaitzak negatiboagoak direla esan daiteke: emaitza ekonomikoa baikorra izango dela adierazi dutenen ehunekoak behera egin baitu, lehen edizioko %26tik hirugarren edizioan %18ra. Emaitza ekonomikoa ezkorra izango dela adierazi dutenen ehunekoa ere aurreko edizioan baino altuagoa da.

Para 3 de cada 10 establecimientos las expectativas para el primer semestre del 2016 son desfavorables. En comparación con los resultados de ediciones anteriores, se puede afirmar que los resultados de expectativas son más negativos: ha disminuido el porcentaje de los que han indicado que el resultado va a ser favorable, pasando del 26% de la primera edición al 18% de la tercera edición. El porcentaje de establecimientos que ha indicado que el resultado económico va a ser desfavorable ha aumentado respecto a la edición anterior.




**Aurreikuspenen balantzea – Balance de expectativas: I/2016**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoa/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/ Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Baikorra/Favorable (%) | 7,7 | 8,3 | 33,3 | 16,7 | 26,3 | **17,6** |
| Normala/Normal (%) | 61,5 | 66,7 | 50,0 | 61,1 | 31,6 | **52,9** |
| Ezkorra/Desfavorable (%) | 30,8 | 25,0 | 16,7 | 22,2 | 42,1 | **29,4** |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | -23,1 | -16,7 | 16,7 | -5,6 | -15,8 | **-11,8** |
| *Saldoa /Saldo II/2015* | *-15,4* | *36,4* | *0,0* | *-5,9* | *-15,0* | ***-3,1*** |
| *Saldoa /Saldo I/2015* | *0,0* | *30,8* | *0,0* | *-11,1* | *-35,0* | ***-7,1*** |

Negozioari eragingo dioten aldagai desberdinen balorazioari dagokionez berriz, establezimenduen aldagaien bilakaeraren ikuspegi negatiboagoa azaldu dute.

En cuanto a la valoración de distintos factores que inciden en el negocio, la evolución de estos factores para el primer semestre del 2016 parece ser más negativa.

Salmentei dagokienez, eta mantenduko direla diotenen ehunekoak nagusitzen diren arren, oraindik, 2016ko lehen seihilekoan EAEko, Estatuko zein atzerriko salmentak jaistea aurreikusten dutela adierazi duten establezimenduen ehunekoa aurreko edizioetan baino altuagoa da. Honela, EAEko salmentak jaitsiko direla aurreikusten dute 10 establezimendutatik 4k, Estatukoak 10etik ia 3k eta atzerrikoak 10etik 3k . EAEko salmenten eta atzerriko salmenten orain arteko aurreikuspenik ezkorrena dela esan daiteke.

2016ko lehen seihilekoan enplegua eta kostuak mantendu egingo direla aurreikusten dute gehienek (%73 eta %77, hurrenez hurren).

En cuanto a las ventas, y aunque prevalezcan los que opinan que las ventas se mantendrán estables, el porcentaje de los que han indicado que las ventas a nivel de la CAE, las ventas al resto del Estado y las ventas al extranjero disminuirán es más elevado. Así, 4 de cada 10 establecimientos opina que las ventas a nivel de la CAE van a disminuir, 3 de cada 10 que las ventas al resto del Estado van a disminuir y 3 de cada 10 que las ventas al extranjero van a disminuir. Se puede decir que es la previsión más negativa hasta ahora en cuanto a las ventas a nivel de la CAE y al extranjero.

La mayoría cree que el empleo y los costes se mantendrán en el primer semestre del 2016 (73% y 77%, respectivamente).

**Aldagaien bilakaera - Evolución de los indicadores**




## Enpresa Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)

EAEko Arte eta Kultura Industrien 2016ko lehen seihileko Enpresa Konfiantza Adierazlea -3,8 puntukoa da. Oraindik ere balio negatiboa duen arren, EKA adierazlearen bilakaerari erreparatuz, orain arteko baliorik positiboena izan da edizio honetakoa (lehen edizioan -4,3ko balioa zuen eta bigarrenean -4,6ko balioa).

## Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e Índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)

El Indicador de Confianza Empresarial del primer trimestre del 2016 de las Artes e Industrias Culturales de la CAE se sitúa en -3,8 puntos. Aunque todavía sea negativo, si observamos la evolución del ICE, en esta edición se ha obtenido el valor más positivo que en ediciones anteriores (en la primera edición el ICE era de -4,3 puntos y en la segunda edición de -4,6 puntos).

Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatuaren balioak ere gora egin du panelaren edizio honetan: 99,9ko balioa izatetik 100,2 izatera. Arte eta Kultura Industrien establezimenduetako enpresa konfiantza asko aldatu ez den arren (seihileko bietako EKA bat bera denean EKAA 100 da), bilakaera positiboa dela esan daiteke.

Enpresa Konfiantzari dagokionean, Liburugintzaren sektorea da adierazlearen baliorik altuena duena (20,5 puntu). Sektorerik ezkorrenak berriz, EKA baliorik baxuena dutenak, Arte eszenikoak (-19,3 puntu) eta Musika dira (-18,4 puntu). Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatuaren (EKAA) baliorik altuena ere Liburugintzari dagokio (110,4 puntukoa) eta baxuena Arte eszenikoak sektoreari (87,1 puntu). Musika sektoreari dagokion EKA balioa baxukoa bada ere, balio horrek aurreko edizioarekiko gora egin izanak EKAA balioa nahiko altua izatea dakar.

También ha aumentado el Indicador de Confianza Empresarial Armonizado, pasando de tener un valor de 99,9 en la edición anterior a un valor de 100,2 en esta edición. Aunque la confianza empresarial de los establecimientos de las Artes e Industrias Culturales no ha variado mucho desde el semestre anterior (cuando el ICE es igual en ambos semestres el valor del ICEA es 100), se puede valorar positivamente la evolución.

El sector del Libro es el sector con mayor valor del ICE, con 20,5 puntos. Los sectores más pesimistas son el sector de las Artes escénicas (-19,3 puntos) y el sector de la Música (-18,4 puntos). El valor más alto del ICEA lo ha obtenido el sector del Libro (108,7 puntos) y el más bajo el sector de las Artes escénicas (92,3 puntos). Aunque el valor del ICE del sector de la Música ha sido bajo, ha aumentado respecto a la edición anterior, por lo que el ICEA es bastante elevado.

**Enpresa Konfiantza – Confianza Empresarial: I/2016**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoa/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/Libro | Musika/ Música | Guztira / Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Enpresa Konfiantza Adierazlea (EKA) – Indicador Confianza Empresarial (ICE)[1] | -19,3 | -4,6 | -0,7 | 20,5 | -18,4 | **-3,8** |
| Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA) – Indicador Confianza Empresarial Armonizado (ICEA) | 87,1 | 87,7 | 109,2 | 110,4 | 106,8 | **100,2** |

[1] *EKA -100 eta 100 artekoa da: balio positiboek aurrerapenak adierazten dituzte jardueran eta balio negatiboek atzerapenak.*
*El ICE varía entre -100 y 100: valores positivos indican avances, mientras que datos negativos señalan retrocesos de la actividad.*

**Enpresa Konfiantzaren bilakaera - Evolución de la Confianza Empresarial**



EKAren sektorekako bilakaeraren azterketan ikus daiteke Liburugintza eta Musika sektoreetan eman dela igoerarik nabarmenena: Liburugintzan ia 21 puntu igo da adierazlea panelaren lehen ediziotik, eta Musika sektorean, ia 12 puntu. Ikusizko Arteetan lehen edizioarekiko ia 17 puntu igo bada ere, oraingoan bigarren edizioan baino balio baxuagoa izan da.

Beste muturrean, Ikus entzunezkoak eta Arte eszenikoak ditugu. Bi sektore horietan EKA 27 puntu jaitsi da panelaren lehen ediziotik.

Si se observa la evolución del ICE por sectores, se puede ver que el sector del Libro y el de la Música son los sectores donde ha aumentado más el ICE. En el sector del Libro el ICE ha aumentado casi 21 puntos desde la primera edición del panel, y en la Música casi 12 puntos. Aunque el ICE haya aumentado casi 17 puntos desde la primera edición en el sector de las Artes visuales, en esta edición se ha obtenido un valor más bajo que en la pasada edición.

En el otro extremo tenemos el sector de Audiovisuales y el de las Artes escénicas. En ambos sectores el ICE ha disminuido alrededor de 27 puntos respecto a la primera edición del panel.

| Agente mota<br>Tipo de agente | 2015/I<br>EKAA/ICEA | 2015/II - II/2015 | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Egoera<br>/Situación | Aurreikuspenak<br>/Expectativas | **EKA/ICE** | **EKAA/ICEA** |
| Arte eszenikoak-Artes escénicas | 94,3 | -15,4 | -23,1 | -19,3 | **87,1** |
| Ikus-entzunezkoa-Audiovisual | 97,5 | 8,3 | -16,7 | -4,6 | **87,7** |
| Ikusizko arteak-Artes visuales | 114,9 | -16,7 | 16,7 | -0,7 | **109,2** |
| Liburugintza-Libro | 101,5 | 50,0 | -5,6 | 20,5 | **110,4** |
| Musika-Música | 101,2 | -21,1 | -15,8 | -18,4 | **106,8** |
| Guztira - Total | 99,9 | 4,4 | -11,8 | -3,8 | **100,2** |

**Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatuaren bilakaera - Evolución de la Confianza Empresarial Armonizado**




EKA bezalaxe, EKAA adierazlearen bilakaera ere aldakorra da sektorez sektore: Liburugintza eta Musika sektoreetan igo egin da EKAA balioa (9 eta 6 puntu inguru, hurrenez hurren). Musika sektorearen baitan ordea, agente mota desberdinetan balioa oso aldakorra da; eta batez ere Kontzertu areto eta Diskoetxeen emaitzek eragiten dute sektoreko EKAA-ren igoera.

Como en el caso de ICE, el ICEA varía considerablemente entre distintos sectores; así, en el sector del Libro y la Música el valor del ICEA ha aumentado (más o menos 9 y 6 puntos, respectivamente). Pero dentro del sector de la Música, el valor varía mucho por tipo de agente; así son los agentes Sala de Conciertos y Discográficas los que han causado que suba el valor del ICEA dentro del sector.

EKAA adierazlearen balioa jaitsi egin da Arte eszeniko, Ikus entzunezko eta Ikusizko arte sektoreetan. Jaitsiera nabarmenena Ikus entzunezkoan eman da (ia 10 puntuko jaitsiera).

El valor del ICEA ha disminuido en las Artes escénicas, en los Audiovisuales y en las Artes visuales. El mayor descenso se ha dado en los Audiovisuales, con un descenso de casi 10 puntos.

## Enpresa jardueran mugatzen duten faktoreak

Enpresa jarduera mugatzen duten faktore gisa, *eskaria jaistea* da Arte eta Kultura Industrietako enpresa establezimenduetako arduradunek sarrien adierazten duten faktorea. Faktore hori establezimenduen %29k adierazi dute. Hala ere, faktore horren ehunekoa jaitsi egin da aurreko edizioekin alderatuta. Faktore horren atzetik *ekoizpen gastuak* datoz, %19, gero *gastu fiskalak, %16,* eta *tesoreria eta finantziazio arazoak* ondoren, %9ko portzentajearekin.

Galdetegian ematen zitzaizkien aukerez gain, enpresa jardueran mugatzen duten bestelako faktoreak ere aipatu dituzte. Azpimarratzekoa da bestelako faktore horien artean positiboki eragiten duten faktoreak ere aipatu direla: besteak beste, *kulturaren suspertze txikia*, edo *kontsumoa igotzea*. Gainera, eta datuek ere hori baieztatzen digute, oro har, badirudi urteko bigarren seihilekoa lehen seihilekoa baino hobea dela alderdi ekonomikoari dagokionez (besteak beste, salmenten urte sasoi horretako igoeraren eraginez). Faktore negatibo modura aipatu dira *digitalizazioa eta pirateria* (internet bidezko deskarga ilegalak...), *kontsumo ohitura aldaketa*...

## Factores limitadores de la actividad empresarial

El *descenso de la demanda* es el factor que más señalan los/as empresarios/as de las Artes e Industrias Culturales de la CAE como factor que limita la actividad de sus establecimientos o la marcha de sus negocios. Este factor es señalado por el 29% de los establecimientos. El porcentaje de este factor ha disminuido respecto a ediciones anteriores. Al *descenso de la demanda* le siguen los *costes de producción*, 19%, los *costes fiscales*, 16%, y la *insuficiente financiación o tesorería, 9%.*

Además de las opciones anteriores, también se han señalado otros factores que limitan la actividad empresarial. Cabe destacar que entre estos otros factores, han aparecido factores que afectan positivamente al negocio, tales como la recuperación de la cultura o el aumento del consumo. Además, y los datos también nos lo corroboran, parece ser que en general el segundo semestre del año suele ser mejor que el primero en cuanto a aspectos económicos se refiere (entre otros aspectos porque inciden los factores estacionales en las ventas, etc.). Como factor negativo se han mencionado la *digitalización y piratería* (descargas ilegales por internet...), el *cambio en los hábitos de consumo*...




**Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak –**
**Factores que limitan la actividad empresarial II/2015**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoa/ Audio-visual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburu-gintza/ Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskaria jaistea/Descenso de la demanda (%) | 48,0 | 35,0 | 41,7 | 20,7 | 15,2 | **29,4** |
| Finantziazio/tesoreria arazoak Insuficiente financiación/tesorería(%) | 4,0 | 20,0 | 16,7 | 0,0 | 12,1 | **9,2** |
| Gastu fiskalak/Costes fiscales (%) | 16,0 | 10,0 | 33,3 | 13,8 | 15,2 | **16,0** |
| Ekoizpen gastuak/Costes de producción (%) | 20,0 | 35,0 | 8,3 | 10,3 | 21,2 | **19,3** |
| Bestelakoak/Otros (%) | 12,0 | 0,0 | 0,0 | 55,2 | 36,4 | **26,1** |

## Giza baliabideak

Arte eta Kultura Industrien Panelaren hirugarren edizio honetan, establezimenduetako giza baliabideez galdetu da lehenengo aldiz. Batetik, negozioan guztira lanean ari direnen kopuruaz galdetu zaie; eta, bestetik, erabakiak hartzeko ardura postuak dituztenen kopuruaz (administrazio kontseiluko kide kopurua, zuzendaritza postu kopurua...), eta beti ere gizon eta emakumeen artean bereiziz.

Jasotako informazioaren arabera, panela osatzen duten Arte eta Kultura Industrietako establezimenduetan guztira 681 lanpostu dira eta erdia baino gehiagotan (%56) emakumezkoak dira. Ardura postuak dituzten lanpostu kopurua 158koa da eta postu horietan emakumeen presentzia % 38ra jaisten da.

## Recursos humanos

En esta edición del panel de las Artes e Industrias Culturales se ha preguntado por primera vez por los recursos humanos de las empresas. Por un lado se les ha preguntado por el número de personas que trabaja en total en el negocio; y por otro, por el número de personas que ocupa cargos de responsabilidad en la toma de decisiones (consejo de administración, puestos de dirección, etc.), y siempre diferenciando entre mujeres y hombres.

Según la información recopilada, hay 681 puestos de trabajo en los establecimientos que conforman el panel de las Artes e Industrias Culturales, y más de la mitad son mujeres (56%). El número de personas que ocupa cargos de responsabilidad es de 158, y el porcentaje de mujeres baja al 38%.

**Enpresako langile kopurua - Personal de la empresa**




**Ardura postuak dituzten langile kopurua - Personal con cargos de responsabilidad**




**Langile kopurua guztira eta ardura postuak dituzten langile kopurua – Personal total y personal con cargos de responsabilidad II/2015**

| | | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | | Ikus-entzunezkoa/ Audiovisual | | Ikusizko arteak/ Artes visuales | | Liburugintza/ Libro | | Musika/ Música | | Guztira/ Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % |
| Enpresako langileak/ Personal empresa | Em./Muj. | 67,0 | 59,3 | 120,8 | 56,0 | 6,5 | 54,2 | 128,0 | 65,8 | 59,5 | 40,9 | **381,8** | **56,1** |
| | Giz./Hom. | 46,0 | 40,7 | 94,8 | 44,0 | 5,5 | 45,8 | 66,5 | 34,2 | 86,0 | 59,1 | **298,8** | **43,9** |
| | Guztira/Total | 113,0 | 100,0 | 215,6 | 100,0 | 12,0 | 100,0 | 194,5 | 100,0 | 145,5 | 100,0 | **680,6** | **100,0** |
| Ardura postuak/ Cargos responsables | Em./Muj. | 19,0 | 52,8 | 8,0 | 24,2 | 5,5 | 57,9 | 19,0 | 48,7 | 8,0 | 20,0 | **59,5** | **37,8** |
| | Giz./Hom. | 17,0 | 47,2 | 25,0 | 75,8 | 4,0 | 42,1 | 20,0 | 51,3 | 32,0 | 80,0 | **98,0** | **62,2** |
| | Guztira/Total | 36,0 | 100,0 | 33,0 | 100,0 | 9,5 | 100,0 | 39,0 | 100,0 | 40,0 | 100,0 | **157,5** | **100,0** |

Musikaren sektorean izan ezik, gainontzeko sektore guztietan handiagoa da emakumezkoen proportzioa gizonezkoena baino, guztirako langile kopuruaz ari garenean. Emakumezkoen proportziorik handiena duen sektorea Liburugintza da (%66 emakumezkoak dira).

Ardura postuei dagokienez berriz, Ikusizko arteetan eta Arte eszenikoetan dira emakumezkoen proportzioak altuagoak; beste hiru sektoreetan baxuagoak dira, ardura postuetan proportzionalki emakumezkoen presentzia baxuena duen sektorea Ikus-entzunezkoena da (4 arduradunetatik 3 gizonezkoak dira).

Excepto en el sector de la Música, en los demás sectores el porcentaje de mujeres es mayor al de los hombres en cuanto al número total de trabajadores. El sector con mayor porcentaje de mujeres es el sector del Libro.

En cuanto a los puestos con cargos de responsabilidad, en el sector de las Artes visuales y en el de las Artes escénicas la proporción de mujeres es mayor que el de los hombres; en los demás sectores el porcentaje de mujeres es menor. El sector con menor porcentaje de mujeres en los puestos con cargos de responsabilidad es el sector de los Audiovisuales (3 de cada 4 responsables son hombre